

EJren Gazte Planaren urteko jarraipen-ebaluazioa: 2018ko txostena



4. #gazteplana#
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| Aurkibidea | 2 |
| 1. Sarrera | 4 |
| 1.1. Aurrekariak eta testuingurua | 4 |
| 1.2. Ebaluazioaren helburuak | 4 |
| 2. Metodologia | 7 |
| 2.1. Ebaluazio mota | 7 |
| 2.2. Erabilitako ebaluazio-irizpideak | 7 |
| 2.3. Informazioa lortzeko datu-iturriak eta erabilitako teknikak eta prozedurak | 8 |
| 3. Emaidza nagusiak | 11 |
| 3.1. 2018ko programazioak IV. Gazte Planaren egitura estrategikoari emandako erantzuna | 11 |
| 3.2. 2018ko programazioko gauzatze-maila | 14 |
| 3.3. 2018ko programazioaren aurrekontua betearaztea | 24 |
| 3.4. Estaldura-maila | 28 |
| 3.5. 2018an aurreikusitako helburuen betetze-maila | 31 |
| 3.6. Kanpoko eragileekiko erantzukidetasun- edo elkarlan-maila | 32 |
| 4. Balorazioa. Ondorioak | 74 |
| 5. Gazteriaren arloko 2020rako euskal strategiaren eraginaren adierazleak | 76 |

#01

Sarrera



1. Sarrera

1.1. Aurrekariak eta testuingurua

2018. urtean Eusko Jaurlaritzaren 2018-2021 aldirako IV. Gazte Planean definitutako estrategia abian jarri da. 2018-2021 aldirako IV. Gazte Plana Eusko Jaurlaritzak gazteekin duen jardunaren eta konpromisoaren jarraipena da, eta bere helburu nagusia gazteen emantzipazioaren alde lan egitea da, bizitza-proiektuak eraiki eta gauzatu ahal izan ditzaten, eta, aldi berean, proiektu kolektiboetan parte hartzeko gaitasuna gara dezaten.

Egituraren eta osaketaren ikuspegitik, Planak guztira 5 ardatz estrategiko, 10 arlo, 23 helburu eta 60 ildo estrategiko ditu; horiek jarduketa zehaztutan zehazten dira, Planean parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek egindako urteko plan operatiboaren bidez.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana III. Gazte Plana 2020ren Marko Orokorrearekin lerratuta dago. Azken horretan, beharrak, lehentasunezko erronkak, helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak zehazten dira, bai epe ertainerako (2016) bai epe luzerako (2020). Adostutako erakundearteko esparru horren helburu nagusia honako hau da: EAEko administrazioek rol handiagoa jokatzeko gazteek, etorkizuneko gizartearen oinarri gisa, benetako aukeraberdintasuna eta beren bizitza modu autonomoan eta librean garatzeko gaitasuna izatea lortzeari begira.

EJren IV. Gazte Planaren lehenengo ezarpen-urte honetan, maila estrategikoan finkatutako helburu eta lehentasunezko ekimenei erantzuteko jarduketa-programa oso bat gauzatu da. Programa horretan, ekitaldian egin beharreko jarduketak zehazteaz gain, zein entitatek eraman behar dituen aurrera, aurreikusitako finantzazioa, balizko onuradunak diren pertsona edo entitateak eta martxan jartzearen berehalako ondorioak neurtu ahal izateko adierazleak finkatzen dira, baita ekitaldi bakoitzean erreferentziazko zein xede-balio lortu nahi den ere.

Urteko programa hori bukatu ondoren, bere gauzatzea, bai fisikoa bai finantzarioa, ebaluatzeko garaia da. Horren bidez, emaitzen eta lortutako estaldura-mailaren berri izateaz gain, programaren informazio- eta jarraipen-sistema bera aztertuko da. Jarduketan gauzatzean betetzea eta eraginkortasuna hobetzeko eta inplikaturako eragileen komunikazioa eta partaidetza bermatzeko gomendioak proposatzea da ekitaldi honetako azken helburua.

Dokumentu hau ekitaldi honetako jarraipen-ebaluazioaren txostena da eta Eusko Jaurlaritzako Gazteriako Sailarteko Batzordeari aurkeztuko zaio oniritzia eman diezaion, gazteriaren arloko jarduketak bultzatzen dituen organo eta horiek garatzea eta modu eraginkorrean aplikatzea bermatzen duen koordinazio-organoa gisa.

1.2. Ebaluazioaren helburuak

IV. Gazte Planaren jarraipen-ebaluazioa definitutako programazioaren aplikazioa kontrolatzearekin eta barne-kudeaketa egitearekin lotuta dago. Egindako analisiaren bidez, maila orokorrean, IV. Gazte Planaren garapen-egoera ezagutzeko asmoa dago, batetik, eta bestetik, bai maila operatiboan bai estrategikoan finkatutako helburuen lorpena bermatzeko gomendioak emateko asmoa.

Zehazki, ebaluazioak honako helburu hauek ditu:

- Jarduketa guztien gauzatze fisikoaren egoera eta planteatutako helburuen betetzea ikustea eta emaitza zuzenak edo berehalakoak baloratzea.
- Gauzatze finantzarioaren maila egiaztatzea eta hasieran aurreikusitako aurrekontuarekin alderatuz desbideratzerik izan den begiratzea.
- IV. Gazte Planaren lehenengo indarraldi-urteko benetako estaldura-maila ezagutzeko eta, maila orokorrean, eragile onuradun motak aztertzea.
- 2018ko jarduketan programazioa martxan jartzean esku hartu duten eragileen erantzukidetasun- eta elkarlan-maila baloratzea.
- Planeko jarduketak ezartzearekin eta horren jarraipen-prozesuarekin lotutako gorabeherak antzematea eta erabilitako prozedura eta tresnak berrikustea.

#02

Metodologia



2. Metodologia

2.1. Ebaluazio mota

Planaren garapen-fasearen arabera, ebaluazio hau ezarpen- edo prozesu-ebaluazio bat da, bi ardatzez osatua: Planaren martxan jartzea, aplikazioa eta funtzionamendua baloratzea eta Plana aurreikusitakoarekin alderatzea. Mota honetako ebaluazioen helburua Planaren garapena gidatzea eta antzemandako balizko desbideratzeak edo gorabeherak zuzentzeko doitzeak edo hobekuntzak egitea da.

Hala ere, egin den garaia egatik –Planaren lehenengo indarraldi-urtearen amaieran– eta edukiagatik, programatutako jarduketan benetako aplikazio-maila, ondorio zuzen edo berehalakoak eta Planaren ezarpenaren neurketa-, kudeaketa- eta kontrol-sistemaren beraren funtzionamendua baloratzeko jarraipen-ebaluazio bat da.

Jarraipen-sistemaren ebaluazioari dagokionez, edukia, fidagarritasuna eta egokitasuna aztertzea bideratuta egon behar du, eta Planaren eguneroko kudeaketan eta gauzatze egokian egiten duen ekarpen-maila zehaztu. Honako hau egiaztatu behar da:

- Sistemak Planaren alderdi guztiak biltzen dituen, zehazki deskribatuz.
- Organo kudeatzaileen eta gauzatzaileen antolaketa-egituretara egokituta eta doituta dagoen. Hau da, eguneroko kudeaketaren barruan dagoen eta Planaren gauzatzean eta kudeaketan inplikaturako guztiek esku hartzen duten ikusi behar da.
- Bere zeregina betetzeko erabiltzen dituen tresnak egokiak diren eta ematen duen informazioa fidagarria den.

Ebaluazioa egin duen eragileari dagokionez, metodologikoki, kanpo-ebaluazio bat da, txosten hau 2018. urteko Plan Operatiboaren gauzatzeaz arduratzen diren erakundeetatik edo eragileetatik independentea den kanpoko talde tekniko batek egin baitu.

Azkenik, bere eginkizunaren arabera, txosten honetan aurkeztutako ebaluazioa «hezigarria» da, IV. Gazte Plana eta horren urteko plan operatiboak hobetzeko informazioa ematera zuzenduta baitago.

2.2. Erabilitako ebaluazio-irizpideak

2018an gauzatutako jarduketak ebaluatzeko honako balorazio-irizpide hauek erabili dira modu homogeenan:

- *Betetzea*, analisirako ikuspegi bikoitz gisa: programatutako jarduketan gauzatze fisikoarena eta aurrekontuaren betearaztearena, erabilgarri dauden bitartekoen erabilera neurtzeko.
- *Eraginkortasuna*, 2018an gauzatutako jarduketekin bilatzen ziren helburuen eta lortutako emaitzen arteko lotura gisa.
- *Estaldura*, egindako jarduketan benetako onuradun diren pertsona edo entitateen proportzioa neurtzeko. Irizpide horren ardatza, era berean, 2018. urteko Plan Operatiboak gazteen kolektiboari zehazki zuzendutako jarduketak zein neurritan biltzen dituen baloratzea izango da.
- *Erantzukidetasuna*, jarduketetan koexekututzaile edo kolaboratzaile gisa aritzen diren hainbat eragilek zenbaterainoko partaidetza duten neurtzeko.

Zehazki, txosten honetan aurkeztutako ebaluazioak honako galdera hauei erantzuten die:

- Jarduketan urteko Plan Operatiboa planifikatu bezala garatzen ari da? Zein da programatutako jarduketan aurrerapenaren edo gauzatze fisikoaren egoera?

- Programatutako jarduketan gauzatzean beste entitate, eragile edo administrazio batzuk ere parte hartzen ari dira?
- Programatutako jarduketak martxan jartzeko erabilitako bitartekoei dagokienez, zenbaterainokoa da gauzatze finantzarioa?
- Gazteen kolektiboarengana iristen ari da?
- Jarraipen-sistemak Planaren gauzatzea eta emaitzak baloratzeko behar den informazioa bermatzen du?
- Emaitzen adierazleetan finkatutako xede-balioak lortzen ari dira? Zein mailatan ari dira betetzen jarduketa bakoitzerako planteatutako helburuak?

2.3. Informazioa lortzeko datu-iturriak eta erabilitako teknikak eta prozedurak

Erabilitako metodologiak informazioaren analisisia izan du oinarrian (datu kuantitatiboak eta informazio kualitatiboa), baita hainbat adierazle ere, honako informazio-iturri hauetatik eskuratuak:

- Aholkularitza-taldeak eraikitako datu-basea. Alde batetik, 2018ko Plan Operatiboaren barruan programatutako jarduketa guztiei buruzko Acceseko datu-basean dagoen informazioa biltzen du, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak mantendu eta elikatua; eta, beste alde batetik, aurreikusitako jarduketan programaren gauzatzearen emaitzen datuak, IV. Gazte Planean inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza bakoitzak betetako ebaluazio-fitxerik esker bilduak.
- Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza inplikatu bakoitzeko arduradun teknikoekin fitxetan jasotako informazioa osatu eta kontrastatzeko eta emandako datuen interpretazioaren inguruko zalantza posibleak argitzeko egindako lanburuak.

#03

Emaitza nagusiak




3. Emaitza nagusiak

3.1. 2018ko programazioak IV. Gazte Planaren egitura estrategikoari emandako erantzuna

Atal honetan, testuinguruan kokatzeko, 2018ko ekitaldian IV. Gazte Planean definitutako estrategia ezartzeko finkatutako urteko Plan Operatiboaren panoramika orokor bat agertzen da.

Hala, 2018ko urteko programazio hori guztira 242 jarduketaz¹ osatuta dago; horietatik % 56 lehenengo ardatzaren barruan daude (*Emantzipazioa eta autonomia*).

2018ko programazioko jarduketaren banaketa, IV. Gazte Planeko ardatzen arabera (%-tan)




Iturria: egileek egina

Arreta IV. Gazte Planaren jarduketa-arlo edo -esparruetan jarriz, ekitaldi honetarako programatutako jarduketa gehienak enpleguaren eta hezkuntzaren arloetakoak dira:

¹ 2018. urtearen hasieran, guztira 229 jarduketa onartu ziren; hala ere, ebaluazioa egiteko garaian, ekitaldian zehar jarduketaren kopurua 242ra igo dela ikusi da.


2018ko programazioko jarduketek bolumena, IV. Gazte Planeko arloen arabera



Iturria: egileek egina

IV. Gazte Planaren helburu estrategikoei dagokienez, 2018ko urteko programazioak, nagusiki, honako helburu hauei erantzuten diela ikusten da: **1. Balioetan oinarritutako hezkuntza eta 2. Kalitate oneko enplegua duten gazte gehiago** (bien artean, aurreikusitako jarduketak guztien % 28 biltzen dituzte), biak ala biak **Emantzipazioa eta autonomia** ardatzaren barrukoak.

2018ko programazioko jarduketek bolumena, IV. Gazte Planeko helburuen arabera



Iturria: egileek egina

Arreta IV. Gazte Planaren ildo estrategikoetan jarritz, 2018ko urteko programazioko jarduketek jasotako 60 ildo estrategikoetatik 55i erantzuten dietela esan daiteke.

Ondoko taulan, dokumentu hau ixteko garaian oraindik 2018ko ekitaldi honetarako jarduketak programaturik ez duten IV. Gazte Planaren ildo estrategikoen zerrenda agertzen da.

| Ardatza | Arloa | Helburua | Ildoa |
|------------------------------------|-------------|--|---|
| Emantzipazioa eta autonomia | Enplegua | Hezkuntza-arloa eta lan-arloa gehiago hurbiltzea eta batetik bestera azkarrago igarotzea | Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza: Enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa |
| | | Gazteen lan-baldintzak hobetzea | Osasunaren zaintza |
| | Etxebizitza | Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat | Gazte-kolektiboetarako etxebizitza babestuak lortzeko lehentasuna ematea |
| | Hezkuntza | Gazte ikertzaile gehiago | Emakume gazteak ikerketari lotutako karreran |
| Ongizatea eta bizitza osasungarria | Osasuna | Gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea | Gazteen artean jarduera eta ariketa fisikoak sustatzea |

IV. Gazte Planeko ildo estrategiko bakoitzeko programaturikotako jarduketaren bolumenari dagokionez, gehienak honako ildo hauetan bilduta daude:

2018ko programazioko jarduketaren bolumena, IV. Gazte Planeko ildo estrategikoen arabera



Iturria: egileek egina

3.2. 2018ko programazioko gauzatze-maila

IV. Gazte Planaren lehenengo indarraldi-urte honetarako definitutako Plan Operatiboaren ezarpenari dagokionez, aurreikusitako jarduketaren gauzatze-maila handia dela ikusten da (% 98,7koa). IV. Gazte Planean parte hartzen duten zuzendaritza, entitate eta organismoek planteatutako helburuei erantzuteko konpromiso-maila handia daukatela adierazten du horrek.

2018ko Plan Operatiboan programatutako jarduketetatik zenbat gauzatu diren



Iturria: egileek egina

Aurreko grafikoa ikus daitekeen bezala, hasieran aurreikusitako hiru jarduera bakarrik geratzen dira ezartzeko. Honako taula honetan, zer jarduketa diren adierazten da:

| 1. ardatza. Emantzipazioa eta autonomia |
|--|
| Arloa: Enplegua |
| Helburu estrategikoa: <i>Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea</i> |
| Esku-hartze lerroa: Orientazio eta laguntza espezifikoak |
| <p>1. LGTBI kolektiboaren lan-diskriminazioaren aurkako LGTBI + Lanbide lantaldea LGTBI + Lanbide lantaldearen bilerak, LGTBI kolektiboa diskriminatzea saihesteko jarduketak garatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> Sail arduraduna: Enplegua eta Gizarte Politikak (Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza) <p>Ez egiteko arrazoia: Lanbideko teknikariek jarduketa aurrera eramateko denborarik ez izatea.</p> |
| Arloa: Hezkuntza |
| Helburu estrategikoa: <i>Balioetan oinarritutako hezkuntza</i> |
| Esku-hartze lerroa: Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza |
| <p>2. Berdinduren Eskola Segurua programa «Eskola segurua: LGTBIfobiari aurrea hartzea eta horri aurre egitea» estrategiarekin zerikusia duten erakundeek elkarrekin biltzeko, kontrastatzeko, koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko esparru bat sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Sail arduraduna: Enplegua eta Gizarte Politikak (Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza) <p>Ez egiteko arrazoia: Langile-aldaketaren ondorioz, LGTBIko teknikari lanpostua aldi batez bete gabe egon da eta horrek jarduketa martxan jartzea eragotzi du.</p> |

3. ardatza. Berdintasuna eta gizarteratzea**Arloa: Gizarte-ekintza****Helburu estrategikoa: *Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea*****Esku-hartze lerroa: Kolektiboen arteko berdintasuna****3. «Euskal gizonen eskutitza»-ren hedapena**

«Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra» agiria zabaltea. Hainbat bidetatik zabalduko da eta sinadurak bilduko dira, Gizonduzen webgunean dagoen aplikazioaren bitartez

- *Sail arduraduna: Lehendakaritza (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea)*

Ez egiteko arrazoia: Jarduketa horren ordez *Gizonok, esan eta egin* kanpaina egin zen.

2018ko programazioa Eusko Jaurlaritzako sail eta zuzendaritza/entitate bakoitzaren arabera aztertuz, jarduketa gehien egin dituztenak Gazteria Zuzendaritza (% 13,4), Lanbide (% 10,5) eta Hezkuntza Berriztatzea (% 9,6) izan direla ikusten da.


| Sailak, zuzendaritzak eta bestelako Eusko Jaurlaritzako erakundeak | Programatutako jarduketaren kopurua | Egikaritutako jarduketaren kopurua |
|--|-------------------------------------|------------------------------------|
| Lehendakaritza | 24 | 23 |
| Gobernu irekia | 1 | 1 |
| Kanpo harremanak | 1 | 1 |
| Biktimak eta Giza Eskubideak | 2 | 2 |
| Euskal komunitatea kanpoan | 1 | 1 |
| Gogora | 1 | 1 |
| Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia | 2 | 2 |
| Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea | 16 | 15 |
| Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | 23 | 22 |
| Nekazaritza eta Abeltzaintza | 5 | 5 |
| Landa eta kostaldeko garapena eta Europar Politikak | 5 | 5 |
| Ekintzailatza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartea | 2 | 2 |
| Nazioartekotzea | 2 | 2 |
| Arrantza eta akuikultura | 2 | 2 |
| Garraioaren planifikazioa | 3 | 3 |
| Teknologia eta Estrategia | 3 | 3 |
| Kalitatea eta Elikadura Industria | 1 | 1 |
| Enplegua eta Politika Sozialak | 80 | 78 |
| Gaztedia | 32 | 32 |
| Lanbide | 25 | 25 |
| Familia Politika eta Dibertsitatea | 20 | 18 |
| Zerbitzu Sozialak | 3 | 3 |
| Ingurumena, Lurralde Planifikazioa eta Etxebizitza | 10 | 10 |
| Ondare Naturala eta Klima Aldaketa | 8 | 8 |
| Planifikazioa eta Etxebizitza Prozesu Operatiboak | 2 | 2 |
| Hezkuntza | 36 | 36 |
| Zentroak eta Planifikazioa | 1 | 1 |
| Hezkuntza Berrikuntza | 23 | 23 |
| Ikerketa | 3 | 3 |
| Unibertsitate Politika eta Koordinazioa | 8 | 8 |
| Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak | 1 | 1 |
| Osasuna | 11 | 11 |
| Osakidetza | 9 | 9 |
| Osasun Publikoa eta Mendetasunak | 2 | 2 |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 6 | 6 |
| Merkataritza | 1 | 1 |
| Kontsumobide | 4 | 4 |
| Turismoa y Ostalaritza | 1 | 1 |
| Kultura eta Hizkuntza Politika | 33 | 33 |
| Jarduera Fisikoa eta Kirolak | 8 | 8 |
| Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioa | 4 | 4 |
| AAPPen hizkuntza normalizazioa | 1 | 1 |
| Ondare Kulturala | 4 | 4 |
| Kulturaren Sustapena | 10 | 10 |
| Euskararen Sustapena | 6 | 6 |
| Segurtasuna | 12 | 12 |
| Segurtasunaren Koordinazioa | 2 | 2 |
| Ertzaintza | 2 | 2 |
| Jokoa eta Ikuskizunak | 6 | 6 |
| Trafikoa | 2 | 2 |
| Lana eta Justizia | 7 | 7 |
| Ekonomia Soziala | 4 | 4 |
| OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | 3 | 3 |
| Guztira | 242 | 239 |

Beste alde batetik, arreta IV. Gazte Planeko jarduketa-ardatz bakoitzean jarriz, honako emaitza hauek lortzen dira 2018. urterako programaturako jarduketek gauzatze fisikoari dagokionez.

3.2.1. Emantzipazioa eta autonomia

IV. Gazte Planaren lehen ardatzari, *Emantzipazioa eta autonomia* izenekoari dagokionez, 2018. urterako programaturako 135 jarduketetatik 133 egin dira.


2018ko Plan Operatiboan 1. ardatzerako programaturako jarduketetatik zenbat gauzatu diren



Iturria: egileek egina

Honako grafiko honetan ikus daitekeen bezala, 1. ardatz honetako *Kalitate oneko enplegua duten gazte gehiago* eta *Balioetan oinarritutako hezkuntza* helburu estrategikoetan egin dira jarduketa gehienak (% 25 eta % 24, hurrenez hurren, lehenengo ardatz honetan gauzatutako jarduketek kopuru osotik).

1. ardatzeko (Emantzipazioa eta autonomia) helburu bakoitzean gauzatutako jarduketek bolumena



Iturria: egileek egina

Jarduketa-ildoen mailara jaitsita, *Berdintasuna, errespetua eta genero-indarkeriaren prebentzioa*

, *Lehen lan-esperientzia izateko bide ematea eta Ekimen ekintzaileen babesa* ildoetan egin dira jarduketa gehienak (% 10 eta % 8 artean, egindako lehenengo ardatzeko jarduketan kopuru osoaren gainean, kasu bakoitzean).

Berdintasuna, errespetua eta genero-indarkeriaren prebentzioa ildoan egindako jarduketak, nagusiki, honako tipologia hauetan sailkatu daitezke:

- Gazteekin lan egiten duten profesionalei edo zuzenean ikasleei zuzendutako prestakuntza-programak.
- Sentsibilizazio-kanpainak hainbat komunikabidetan.
- Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko prozedurak hobetzea.
- Ikastetxeentzako laguntzak, genero-indarkeria prebenitzeko proiektuak diseinatzeko.

1. ardatzeko (*Emantzipazioa eta autonomia*) jarduketa-ildo bakoitzean gauzatutako jarduketan bolumena



Iturria: egileek egina

3.2.2. Ongizatea eta bizitza osasungarria

Nabarmentzekoa da *Ongizatea eta bizitza osasungarria* ardatzean programatutako jarduketak guztiak gauzatu direla; guztiak, osasunaren arlo edo esparrukoak.

2018ko Plan Operatiboan 2. ardatzerako programatutako jarduketetatik zenbat gauzatu diren




Iturria: egileek egina

IV. Gazte Planaren helburu estrategikoei dagokienez, gauzaturako jardueren ia erdiak *Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea* helburura bideratuta daude eta, nagusiki, honako hauek egin dira:

- Tabakoa eta alkohola kontsumitzearen arriskuez eta trafiko-istripuetan dituzten ondorioez ohartarazteko, mugikortasun seguru eta jasangarria sustatzeko eta gai horien inguruko bitarteko didaktikoak banatzeko kanpainak.
- Jokoaren arloko kontrola eta ikuskaritza indartzeko ekintzak, nerabeek jokoarekiko mendekotasun-jokabideak garatzea eta sare sozialak arduragabeki erabiltzea saihesteko.

2. ardatzeko (Ongizatea eta bizitza osasungarria) helburu estrategiko bakoitzean gauzaturako jarduketaren bolumena



Iturria: egileek egina

Jarraian, esku-hartze lerroak agertzen dira, gauzatutako jarduketaren kopuruaren arabera antolatuta:

2. ardatzeko (Ongizatea eta bizitza osasungarria) jarduketako-ildo bakoitzean gauzatutako jarduketaren bolumena



Iturria: egileek egina

3.2.3. Berdintasuna eta gizarteratzea

Gizarte-ekintza eta berdintasuna ardatzaren kasuan, guztira 21 jarduketa zeuden aurreikusita eta ebaluazio-prozesuak agertarazi duenez, azkenean, aurreikusitako jarduketetako bat ez da egin, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutako «Euskal gizonen eskutitzaren hedapena», horren ordez «Gizonok, esan eta egin» kanpaina egin baita.

2018ko Plan Operatiboan 3. ardatzerako programatutako jarduketetatik zenbat gauzatu diren




Iturria: egileek egina

Arreta ardatz honetako helburu estrategikoetan jarritz, bi helburu hauetan egin dira jarduketa gehienak, neurri berean: *Berdintasunean aurrerapausoak ematea hainbat entitateen artean* helburuan –gazte guztien artean berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko lan egitera zuzenduta dago, horien sexu-joera alde batera utzita eta

genero-indarkeriaren aurkako borrokan arreta berezia jarri- eta *Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea* helburuan -emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea du xede, genero-desparekotasun eta -diskriminazio larrienetakotzat jotzen baitu-.


3. ardatzeko (*Berdintasuna eta gizarteratzea*) helburu estrategiko bakoitzean gauzatutako jarduketaren bolumena



Iturria: egileek egina

Ardatz honi dagozkion esku-hartze lerroetan emaitza nahiko gorabeheratsuak daude. *Sentsibilizazioa eta prebentzioa (zero tolerantzia)* eta *Berdintasuna etxean eta familian (kontziliatio arduratsua)* lerroetan egin dira jarduketa gehien. Honako grafiko honetan, esku-hartze lerroetan egin diren jarduketaren kopuru banakatua agertzen da:

3. ardatzeko (*Berdintasuna eta gizarteratzea*) jarduketa-ildo bakoitzean gauzatutako jarduketaren bolumena



Iturria: egileek egina

Sentsibilizazioa eta prebentzioa (zero tolerantzia) lerroan gauzatu diren bost jardueren tipologia zehaztuz, horietako bi prestakuntza-programekin lotuta daudela ikusten da; beste bi jarduketak generoaren arloko master ofizialeko ikasketak egiteko dirulaguntzak dira eta, azken jarduketak, *Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik kanpaina* izenekoak, hainbat motatako ekintzak biltzen ditu, hala nola lehiaketa baterako deialdia egitea, topaketa-jardunaldi bat antolatzea edo puntu lila erabiltzea sustatzea emakumeen aurkako indarkeria errefusatzearen ikur gisa.

3.2.4. *Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa*

Ardatz honetan, aurreikusitako 27 jarduketetako guztiak egin dira; horietatik guztira 20 partaidetzaren arlo edo esparrukoak ziren eta 7 kontsumokoak.


2018ko Plan Operatiboan 4. ardatzerako programatutako jarduketetatik zenbat gauzatu diren



Iturria: egileek egin

Ikusten denez, ardatz honen barruan martxan jarri diren jarduketek % 74k *Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea* helburu estrategikoari erantzuten diote.

4. ardatzeko (Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa) helburu estrategiko bakoitzean gauzatutako jarduketek bolumena



Iturria: egileek egin

Jarduketa-lerroei dagokienez, jarduketek % 44 *Partaidetzaren kultura eta eztabaidarako guneak* lerroa sustatzera bideratuta daude. Jarduketa-lerro horren bidez gazteen kolektiboa sentsibilizatzeko eta EAEn gazteek parte hartzeko dauden tresnak ezagutarazteko asmoa dago eta 2018. urtean mota honetako jarduketak egin dira:

- Euskadiko gazteek hainbat gairi buruz (enplegua, emantzipazioa, gizarte-testuingurua) duten iritzia ezagutzeko azterlan eta ikerlanak egin dira.
- Gazteei informazioa eta laguntza emateko tresnak eta zerbitzuak martxan jarri.
- EAEko gazteentzako tokiko ekipamendu-sarea bultzatzeko dirulaguntzak eman.

- Gazteriaren arloko langileei gazteek eremu digitalean dituzten ohiturak, jokabideak eta bizipenak ezagutzeko ikastaroak eman zaizkie.

4. ardatzeko (Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa) jarduketeta-ildo bakoitzean gauzatutako jarduketeten bolumena



Iturria: egileek egina

3.2.5. Sozializazioa

Ardatz honetan 2018. urteko Plan Operatiboan programatutako 32 jarduketak egin dira; horietatik % 40 kulturaren arlo edo esparrukoak dira.


2018ko Plan Operatiboan 5. ardatzerako programatutako jarduketetatik zenbat gauzatu diren



Iturria: egileek egina

Arreta IV. Gazte Planeko azken ardatz horren helburu estrategikoen azterketan jarriz, 2018. urtean egindako jarduketeten % 40 Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea helburura zuzenduta zeudela ikusten da.

5. ardatzeko (Sozializazioa) helburu estrategiko bakoitzean gauzatutako jarduketan bolumena



Iturria: egileek egina

Esku-hartze lerroei dagokienez, jarduketan % 37 *Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea* helburura zuzenduta daude, azken urteetan nabaritu den joera negatiboari buelta emateko, zeinak adierazten duen 15 urtetik 29ra bitarteko gazte euskaldunek gero eta gutxiago erabiltzen dutela euskara lagunekiko harremanetan². Nagusiki, mota hauetako jarduketak egin dira:

- Entitateentzako dirulaguntzak, euskararen erabilera sustatzeko aisialdiko programak, argitalpen eta aplikazioak eta webguneak egiteko.
- Eskolaz janpoko jarduketa-programak (udalekuak eta/edo kanpalekuak).
- Mintegiak, jardunaldiak edo topaketa eta komunikaziorako bestelako jarduketak.

5. ardatzeko (Sozializazioa) jarduketa-ildo bakoitzean gauzatutako jarduketan bolumena



Iturria: egileek egina


²Gazteen Euskal Behatokiaren arabera, 2004 eta 2016 bitartean, beren lagunekin komunikatzeko hizkuntza nagusi gisa euskara erabiltzen duten 15 urtetik 29ra bitarteko gazteen bolumena % 10 baino gehiago jaitsi da; hala, % 48,5etik % 38,1ra igaro da (Iturria: *Euskadiko Gazteak bilduma*).

3.3. 2018ko programazioaren aurrekontua betearaztea

Jarraian dauden lerroetan, 2018. urtean gauzatutako Plan Operatiboaren betetze-maila aztertuko da, hasieran aurreikusitako aurrekontura egokitzearen ikuspegitik.

Egindako azterketaren emaitzaren arabera, 2018ko ekitaldia amaituta, urtearen hasieran aurreikusitako aurrekontua baino % 12 gutxiago betearazi da; hori, neurri batean, azkenean egin gabe utzi diren jarduketek justifikatu dezakete.

2018ko ekitaldirako programatutako aurrekontutik betearazi den zenbateko osoa



Iturria: egileek egina

Betearazitako aurrekontuaren zenbateko osoa IV. Gazte Planeko ardatz bakoitzaren arabera banakatuta, *Emantzipazioa eta autonomia* ardatzak gastuaren zati handiena biltzen duela ikusten da (betearazitako kopuru osoaren % 63,7). Hala ere, jarduketa bakoitzagatik batez besteko gastu handiena izan duen ardatza *Berdintasuna eta gizarteratzea* izenekoak izan da; 20 jarduketa bakarrik eginda betearazitako aurrekontuaren zenbateko osoaren % 31,6 biltzen du (batez beste 2,8 milioiko gastua jarduketa bakoitzagatik).



Betearazitako aurrekontua jarduketa-arlo edo -esparruen arabera banakatuz, hezkuntzaren arloak eta gizarte-ekintza eta berdintasunaren arloak exekutututako zenbateko osoaren % 64,4 biltzen dutela ikusten da.

2018ko ekitaldian exekutaturako zenbateko osoa, jarduketa-arlo bakoitzaren arabera




Iturria: egileek egina

Beste alde batetik, betearazitako gastua hasieran aurreikusitakoarekin alderatuz, kontsumoaren arloak du desbideratze handiena (% 50 gutxiago) eta ondoren enpleguarenak (% 35 inguru gutxiago).

Helburu estrategikoei dagokienez, *Gizarte-ekintza eta berdintasuna* arloko *Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea* helburuan betearazi da aurrekontu-bolumen handiena (betearazitako aurrekontu osoaren % 24,9); ondoren, hezkuntzaren arloko *Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman* helburuan (betearazitako aurrekontu osoaren % 19,6).

2018ko ekitaldirako aurrekontuaren zenbateko osotik gauzatu den gastua, helburu estrategiko bakoitzaren arabera




Iturria: egileek egina

Helburu estrategikoen kasuan, gauzatutako gastua hasieran finkatutako aurrekontuarekin alderatuz, desbideratze handiena *Kalitate oneko enplegua duten gazte gehiago* helburuan gertatu da; % 35 gutxiago gauzatu da.

Analisiarekin jarraituz, hurrengo grafikoan, IV. Gazte Planeko jarduketeta-ildoetako aurrekontu-betearaztearen arloko konparazioa agertzen da. Hala, *Gizarte-ekintza eta berdintasuna* arloko *Oinarrizko beharrak estaltzea* lerroak 2018. urtean gauzatutako gastuaren % 24,9 biltzen duela ikusten da.

2018ko ekitaldirako aurrekontuaren zenbateko osotik gauzatu den gastua, esku-hartze lerro bakoitzaren arabera



Iturria: egileek egina

Baina enpleguaren arloko *Lehen lan-esperientzia izateko bide ematea* lerroak % 35eko desbideratzea du, lerro horretan aurreikusitako jarduketak martxan jartzeko egindako gastua hasieran programatutako aurrekontuarekin alderatuz gero.

Arreta gauzatutako jarduketetan jarriz gero, horietako hamarrek betearazitako aurrekontu osoaren % 73 biltzen dutela ikusten da. Gainera, nabarmena da *Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria* lerroarekin lotutako jarduketak gastu osoaren % 32 biltzen duela.

| Zuzendaritza eta Jarduketaren izena | Egikaritutako aurrekontua (C) |
|---|-------------------------------|
| Lanbide | 58.449.906,8C |
| Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzea | 44.722.018,0C |
| Prestakuntza zentro pribatu eta publikoetan, langabeentzat | 5.317.916,0C |
| Gazteen kontratazioa toki-entitateetan. Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboa, Gazteentzako Bermea | 4.952.950,0C |
| Enplegua sustatzeko toki-ekintzak | 3.457.022,8 C |
| Unibertsitate Politika eta Koordinazioa | 26.858.579,2 C |
| Unibertsitate-beka orokorren, mugikortasun-arazo bereziak dituzten ikasleentzako beken eta bikaintasun akademikoko beken deialdia | 26.858.579,2 C |
| Planifikazioa eta Etxebizitza Prozesu Operatiboak | 24.360.000,0 C |
| Gazteei esleitutako alokairuko etxebizitzaren ehunekoa handitzea | 24.360.000,0 C |
| Familia politika eta Dibertsitatea | 11.273.094,9C |
| Familia eta lana kontziliatzeko familientzako laguntza-ildoak | 7.255.794,9 C |
| Ardurapean dauzkaten seme-alabengatik, familientzako laguntza-ildoak | 4.017.300,0 C |
| Ikerketak | 10.354.703,2 C |
| Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengoetan | 10.354.703,2C |
| Guztira | 131.296.284,2C |

Azkenik, hurrengo orrialdean agertzen den taulan, gauzatutako gastua eta aurreikusitako aurrekontua alderatzen dira, 2018. urteko Plan Operatiboa gauzatzear arduratu diren Eusko Jaurlaritzako sail, zuzendaritza eta entitate/organismo bakoitzaren arabera banakatuta.

Programatutako aurrekontuaren kopuruari dagokionez, kasu batzuetan zenbatekorik gabe agertzen da, dagokion zuzendaritzak gazteen kolektiboari bideratutako zenbatekoa kalkulatzeko zailtasunak izan dituelako, dela bere jarduketak populazio orokorrari zuzenduta daudelako, dela beste mota bateko kolektiboetara ematen dietelako eta onuradun horien bolumenari buruzko informaziorik ez dagoelako.

| Sailak, zuzendaritzak eta bestelako Eusko Jaurlaritzako erakundeak | Aurreikusitako aurrekontua(€) | Egikaritutako aurrekontua(€) |
|---|--------------------------------------|-------------------------------------|
| Lehendakaritza | 1.414.746,86 € | 1.317.800,68 € |
| Gobernu irekia | 36.300 € | 36.300 € |
| Kanpo harremanak | 115.800 € | 112.000 € |
| Biktimak eta Giza Eskubideak | 400.000 € | 400.000 € |
| Euskal komunitatea kanpoan | 51.600 € | 51.600 € |
| Gogora | 135.090,54 € | 135.090,54 € |
| Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia | 212.000 € | 212.000 € |
| Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea | 463.956,32 € | 370.810,14 € |
| Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | 10.318.983,63 € | 5.675.330,19 € |
| Nekazaritza eta Abeltzaintza | 526.500 € | - |
| Landa eta kostaldeko garapena eta Europar Politikak | 518.860 € | 610.388 € |
| Ekintzaitza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartea | 2.250.000 € | 23.460 € |
| Nazioartekotzea | 2.571.738 € | 1.437.936,42 € |
| Arrantza eta akuikultura | 233.815 € | 233.815 € |
| Garraioaren planifikazioa | 446.674,75 | 223.032,5 € |
| Teknologia eta Estrategia | 2.462.500 € | 2.114.952,8 € |
| Kalitatea eta Elikadura Industria | 1.308.805,88 € | 1.031.745,47 € |
| Enplegua eta Politika Sozialak | 103.163.494,31 € | 84.575.912,63 € |
| Gaztedia | 7.320.064 € | 5.706.447,9 € |
| Lanbide | 73.761.929,29 € | 66.276.691,91 € |
| Familia Politika eta Dibertsitatea | 16.897.789,75 € | 11.833.920,82 € |
| Zerbitzu Sozialak | 5.183.711,27 | 758.852 € |
| Ingurumena, Lurralde Planifikazioa eta Etxebizitza | 24.969.944 € | 25.191.944 € |
| Ondare Naturala eta Klima Aldaketa | 1.629.944,00 € | 831.944,00 € |
| Planifikazioa eta Etxebizitza Prozesu Operatiboak | 23.340.000,00 € | 24.360.000,00 € |
| Hezkuntza | 59.422.905 € | 57.770.955,09 € |
| Zentroak eta Planifikazioa | Capitulo 1 | Capitulo 1 |
| Hezkuntza Berrikuntza | 11.624.646 € | 10.503.557,77 € |
| Ikerketa | 14.233.944 € | 12.639.843,23 € |
| Unibertsitate Politika eta Koordinazioa | 33.048.000 € | 34.111.239,09 € |
| Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak | 516.315 € | 516.315 € |
| Osasuna | 1.907.466 € | 2.051.546 € |
| Osakidetza | 744.546 € | 726.546 € |
| Osasun Publikoa eta Mendetasunak | 1.162.920 € | 1.325.000 € |
| Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 433.050 € | 57.211,70 € |
| Merkataritza | 408.050 € | 57.211,70 € |
| Kontsumobide | - | - |
| Turismoa y Ostalaritza | 25.000 € | - |
| Kultura eta Hizkuntza Politika | 4.215.603,88 € | 3.940.529,52 € |
| Jarduera Fisikoa eta Kirolak | 424.700 € | 424.700 € |
| Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioa | 354.400 € | 398.553 € |
| AAPPen hizkuntza normalizazioa | 831.300 € | 831.300 € |
| Ondare Kulturala | 309.000 € | 306.769,32 |
| Kulturaren Sustapena | 1.176.196,68 € | 931.200 € |
| Euskararen Sustapena | 1.120.007,2 € | 1.048.007,2 € |
| Segurtasuna | 331.043,7 € | 254.211,94 € |
| Segurtasunaren Koordinazioa | - | - |
| Ertzaintza | - | - |
| Jokoa eta Ikuskizunak | - | 38.211,94 € |
| Trafikoa | 331.043,7 € | 216.000 € |
| Lana eta Justizia | 421.000 € | 226.000 € |
| Ekonomia Soziala | 415.000 € | 220.000 € |
| OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | 6.000 € | 6.000 € |
| Guztira | 206.598.147,38 € | 181.061.441,75 € |

3.4. Estaldura-maila


IV. Gazte Planak, lehen ezarpen-urtean, gazteen kolektiboari bakarrik onura egiteko –beste mota bateko hartzailek barne hartu gabe– diseinatutako jarduketak % 65 inguru gauzatu ditu.

2018ko ekitaldiko Plan Operatiboari esker, gutxienez 1.089.765 pertsonari egin zaie onura eta horietatik **306.048 gazteen kolektibokoak**³ izan dira.

Azken datu hori IV. Gazte Planeko ardatzen arabera banakatuta, gazte kopuru handienari (% 25 inguru) eragiten dion ardatza *Emantzipazioa eta autonomia* izenekoa dela ikusten da.



Gazte onuradunen bolumena, IV. Gazte Planeko jarduketara-ardatz bakoitzaren arabera



Iturria: egileek egina

Gazte onuradunen profila aztertuz, onuradunen % 21 emakumeak izan direla ikusten da⁴.

2018an gauzaturako jarduketak bakoitzeko onuradunei buruz emandako informazioaren arabera, hurrengo taulan gazte onuradun gehien izan dituzten jarduketak ikusten dira:


| Gazte onuradun kopuru handia duten jarduketak | Pertsona onuradunen kopurua |
|---|-----------------------------|
| Gazte Txartelaren urteko kanpaina | 49.091 |
| Berdintasun-mezuak biltzen dituen eskola-agenda bat egin eta zabaltzea | 40.000 |
| "Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz" programa | 33.336 |
| Prebentzio unibertsaleko programak | 31.727 |
| Adingabeak eta alkohola programa | 30.120 |
| Bideko jokabide arriskutsuak eta dauzkaten ondorioak buruzko kanpainak (abladura, alkohola, drogak eta segurtasun-gailuak), ikastetxeetako nerabe eta gazteentzat | 19.778 |
| Elkarrekin Bonuak Programa | 16.259 |
| Udaltzaingoek prestakuntza-jarduerak egitea, trafikoan ezbehar kopurua txikitzeko | 11.173 |
| Unibertsitateko-prezio publikoen salbuespena zenbait egoeratan | 10.155 |
| Prestakuntza-tallerrak zenbait arlotan | 8.693 |
| Guztira | 250.332 |

Jarraian, gazte onuradunen profila aztertzen da, 2018an IV. Gazte Planeko jarduketara-erlora bakoitzean gauzaturako jarduketak arabera.

³ Onuradunen kopuru osoa 135 jarduketatan bildutako estaldura-datuaren baturaren bidez lortzen da. Hau da, 2018an gauzaturako jarduketak % 56,5ek bakarrik ematen dituzte onuradunen bolumen osoa kuantifikatu ahal izateko datuak.


⁴ Onuradunen generoaren arabera 2018. urtean gauzaturako 239 jarduketetatik 74tan bakarrik egin da.

3.4.1. Emantzipazioa eta autonomia



Iturria: egileek egina

3.4.2. Ongizatea eta bizitza osasungarria




Iturria: egileek egina

3.4.3. Berdintasuna eta gizarteratzea




Iturria: egileek egina

3.4.4. Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa



Iturria: egileek egina

3.4.5. Sozializazioa



Iturria: egileek egina

3.5. 2018an aurreikusitako helburuen betetze-maila

2018. urteko Plan Operatiboak **eraginkortasun-maila handia** izan du, **gauzatutako jarduketaren % 84k baino gehiagok finkatutako helburuak betetzeak**⁵ erakusten duen bezala.

IV. Gazte Planaren 2018. urteko programazioan finkatutako helburuen betetzearen eraginkortasun-maila



Iturria: egileek egina

⁵ Ebaluazio-fitxetan garatutako jarduketaren % 96,2ren helburuen betetzeari edo ez-betetzeari buruzko informazioa eman da. Beraz, ez dakigu gainerako jarduketa-ehunekoan, jarduketa gauzatu arren, planteatutako helburuei erantzun partziala edo osoa ematen ari zaien.

2018. urteko programaziotik gauzaturako jarduketaren bolumena, finkaturako helburuen betetze-mailaren arabera



Iturria: egileek egina

Beste alde batetik, aipatzekoa da **gauzaturako jarduketaren % 12k partzialki betetzen dituztela** urteko programazioan finkaturako **helburuak**.

